

# "Arkitekturaren ere konstante bakarra aldaketa da"

**XABIER BARRUTIETA** ARKITEKTOA

Nolakoak izango dira etorkizuneko hiriak? Zeintzuk dira arkitekturaren egungo erronkak? Goienagusik Arrasaten antolatutako hitzaldian galdera horiei eta beste hainbati erantzuna eman die arkitekto donostiarrak. Besteak beste, berak diseinatutakoa da Hernanin dagoen Orona Ideo eraikin ikusgarria. Testua eta argazkiak: **Txomin Madina.**

**M**usika ikasketak ere badituen arren, umetan Lego piezekin jolasten zen Xabier Barrutietak (Donostia 1978) pentagramak planoekin aldatu zituen. Barru Arkitektura bulegoaren fundatzailea, EHUko irakaslea eta hainbat sariren irabazlea, jasangarritasunari arreta berezia jartzen dio bere diseinuetan.

**Zein izango da gaur egungo eta etorkizuneko hirien arteko alderik handiena?**

Hiriak beti dabilta aldatzen, eboluzio iraunkor baten egoten dira. Etorkizunera begira nora joango garen jakiteko, gaur egun gertatzen ari dena ulertu behar dugu. Arrasaten eman nuen hitzaldian egin nuen lehenengo gauza horixe izan zen, gaur egungo erronkak edo etorkizunera begirako galderak azaltzea.

**Zeintzuk dira egungo erronka horiek?**

Gizarte bezala aurre egin behar diegun erronkak dira, eta horietan arkitektook badugu bai zeresana eta baita zeregina ere. Lehen erronka da urte gutxian European neutraltasun klimatikoa lortzea; kontuan hartu behar dugu hiriek aldaketa klimatikoa eragiten duten gas-isuriaren %40 sortzen

duela; gehienbat, berokuntza sistemek sortutako isuriak direla eta. Beraz, arkitektura energia-sortzaile izango da energia positiboko eraikin eta hiri-zelulak izango direlako. Energiaraz haratago, kontzeptu hau lehengaietara eta elikagaietara ere zabaltzea behar dugu, horrela modelo zirkular baterantz abiatuz, non hondakinak berreskuratu eta berrabiltzea lehenetsiko den. Gaur egun, obra batera eramandako materialaren %30 zabor bihurtzen da, eta hori ez da jasangarria.

Hirigintzan mugikortasun pribatuaren ordezkoak diren beste eredu batzuk ari dira sustatzen eta gailentzen; hiriguneetan garraio publiko garbia bakarrik onartuz, esaterako, edo bizikletei eta beste gailu elektriko batzuei bide emanez.

Hamabost minutuko hirien kontzeptua indarra hartzen ari da, eta modelo horrek, eguneroko mugikortasuna murrizteaz gain, hiri espazioa oinezkoentzat berreskuratu, natura era nabarmenagoan hirian txertatu eta gertuko merkataritza eredu berriak asmatzea dakar. Honekin guztiarekin lotuta, lan egiteko espazioak ere eraldatzen ari dira: gaur egun, horietako asko ez dira ez bulegoak, ezta etxeetan dauden tokiak ere, *hirugarren espazioak* deitzen direnak





baizik. *Starbucks* efektua lanlekuetara ari da zabaltzen: bulegoak mahai eta bilera gelek in osatuta egon beharrean, elkarlanerako eremu malgukin daude osatuta, eta bezeroak edo bisitariak talde-giro horren parte bihurtzen dira. Horrek, era berean, talentua erakarri eta enpresaren marka eta balioak indartzeko ere balio du, besteak beste.

#### **Arkitektura bera aldaketa garaian dago ala beti da aldaketa garaia arkitekturan?**

Arkitekturan ere konstante bakarra aldaketa dela esango nuke. Arkitekturak berrikuntzak, teknologiak eta material berriak jasotzen ditu bere eremura ekarriz berrikuntzak proposatzeko. Baina, sarri, arkitektura aldaketa-prozesuetan azkena dator, oso kontserbadorea delako. Batez ere, etxebizitzetan: hainbeste diru inbertitzen dugun zerbaitetan, ez dugu arriskatu nahi izaten eta ezaguna dena hobesteko joera dugu. Baina enpresen arkitektura korporatiboan edo eraikin publikoetan, adibidez, berrikuntza erradikalagoak egin ditzakegu, eta diseinua bera ere lagungarri izaten da berrikuntzak edo garai berriak islatzeko orduan.

#### **Arkitektoek gizarteko debateetan egon behar duzuela aldarrikatu duzu.**

Bai, eta hori irudikatzen du adibide bat jarriko dut. Digitalizazioaren gorakada dela-eta, asko hitz egin da azken urteetan *smart city* edo hiri adimenduen inguruan. Enpresa teknologiko askok, euren produktuak saltze aldera, hiriaren ikuspegi berri bat sortzen zuten; esaterako, sentsoreak jartzea faroletan, zaborraren kamioia noiz igaro den edo zenbat auto edo pertsona pasatu diren jakiteko... Teknologia gauza asko egiteko erabil dezakegu, baina ez badugu aurrez pentsatu eta diseinatzen zer eta zertarako nahi dugun, esku artetik ihes egingo digun zerbait da. Beraz, argi izan behar dugu helburua: gure diseinuen bidez pertsonentzat bizi-esperientzia interesgarriak eta bizi-kalitate hobea sortzea, eta, horretarako, teknologiak pertsonen zerbizura jarri eta hiritar adimendunak, *smart citizen*-ak, behar dira.

#### **Gaur egun, arkitekto batek garai baten baino alor gehiago kontrolatu behar ditu?**

Momentua konplexua da, baina, atzera begira jartzen bagara, arkitekturan aldaketa oso sakonak izan dira konturatu gara. Arkitektoak gai izan dira aldaketa horiek zetozeala ikusi eta euren eremutik harago zeuden ezagutza eta sentsibilitate zabalagoak jasotzeko. Arkitektoak orkestra-zuzendariak gara, hein batean. Gure eginbeharretako bat da diseinu

batean egon daitezkeen alor guztien artean oreka bat jartzea. Proiektu bakoitzean alorren arteko lehenetsunak ezartzea da gakoak: argiztapena, akustika, irisgarritasuna, materialen konbinaketa... Sakonki ez bada ere, arkitektoak denak ezagutu behar ditu, eta gero, erabakiak hartu.

#### **Donostian egindako ikasketak Alemanian eta Suitzan egindako beste batzuekin osatu zenituen.**

#### **Garrantzitsua da beste herrialde batzuetan gertatzen ari direnari adi egotea?**

Nire ustez, oso garrantzitsua da beste arkitekto talde inportante batzuk egiten ari direna ezagutzea, baita unibertsitateetan ikertzen dutena ere. Kontuan hartu behar da badugula non begiratu eta ikasi. Nik Alemanian ikasi nuenean ikusi nuen hango ikasketa ereduak hamar urte geroago hona etorri zela. Beraz, atzerago egon arren, beste herrialde batzuetan egiten dabilenaren berri izateak abantaila bat ematen dizu. Niri, bereziki, Europa iparraldean, Danimarkan, Alemanian, Herbehereetan, Suitzan... egiten ari diren gauzak asko gustatzen zaizkit. Horiek inspirazio dira hemen, eta, azkenean, egin egiten dira. Adi egoteko, bidaiatzea edo hizkuntzak menderatzea abantaila bat da.

#### **Zuretzat, zeintzuk dira diseinu batek bai ala bai jarraitu behar dituen irizpideak? Nondik hasten zara eraikin bat diseinatzen?**

Lehenengo, testuingurua dago, beti delako bakarra eta berezia: ezin duzu eraikin bat beste baten toki bereberean eraiki, eta horrek berezkoak ditu orografia, paisaia, orientazioa eta klima, esaterako. Erreferentzia historikoak eta sozialak irakurtzea ere interesgarria da: tokian tokiko materialak, tradizioak ematen digun ezagutza... Ez kopiatzeko, funtzionatu duen horren berri ematen digutelako baizik. Egunerokotasunean, bestalde, planteatzen diren diseinuen bideragarriak izan behar dute; zerbait berritzailea bada, behar bezala egikaritu daitekeela bermatu behar da. Berrikuntzak arriskuak hartzea dakar, baina hauek mugatzea funtsezkoa da. Horretarako, merkatua ere ezagutu behar da, eta, posible bada, industrialak proiektu fasean ere integratu, ideiak errealitatez oztupo handirik gabe eraman ahal izateko.

#### **Orain arte diseinatu duzun zein eraikinekin zaude harroen?**

Osoenetakoa Orona Ideo da, duen tamainaz harago, jasangarritasunaren ikuspuntutik eta diseinuaren aldetik duen koherentziagatik. Esango nuke etorkizuneko eredu bat aurreratu



Barrutieta, Arrasaten egindako hitzaldian.

**"GAUR EGUN, OBRA BATERA ERAMANDAKO MATERIALAREN %30 ZABOR BIHURTZEN DA"**

**"ETXEBIZITZA BAT MERKEA EDO GARESTIA IZAN, EGITURA EGITEA, ADIBIDEZ, BERDIN KOSTATZEN DA"**

**"ARKITEKTURAK GURE BIZITZETAN DUEN INPAKTUA NABARMEN GERATU DA ITXIALDIAREN ONDORIOZ"**

zuela eta oraindik ere eredu garri izan daitekeela: erakusten du diseinu jasangarria landuz energia fosilik gabeko eraikinak egin daitezkeela, eta, hortaz, etorkizuneko Energia Positiboko Eraikinen eredutzat har daiteke. Angulas Aginaga eta Sukia Eraikuntzak enpresentzat egindako proiektuak ere oso interesgarriak izan dira, egindako arkitekturaren bidez enpresek beren arima fatxada eta espazioetan islatuta ikustea lortu dugulako.

#### **Posible da kalitatezko eraikin merkeak, edo ez oso garestiak, egitea?**

Bai. Etxebizitza bat merkea edo garestia izan, egitura egitea, adibidez, berdin kostatzen da, prestazioek berberak izan behar dutelako: eraikina ezin da erori. Etxebizitzaren salmenta prezioan aldagai nagusia eta gehien garestitzen duena eraikina egongo den lekua eta lurraren balioa dira; baina hor arkitektura diseinuak ezin du askorik egin. Beste hein batean, akaberak, domotika eta elektrotresnak-eta modu batekoak edo besteak izateak ere badu eragina prezioan. Materialak eurak ere ondo aukeratu behar dira, kasu bakoitzerako egokiak izan behar dute-eta, kasu bakoitzean arazorik sor ez dezaten. Epe luzera, material merkeenak ez dira merkeenak izaten; izan ere, momentuan garestiagoak izan daitezkeen material on batzuek, egonkorrek, iraunkortasun onekoek, epe luzera aldatzeko behar gutxiago ekarriko digute. Eraikitzen diren industrializatuak ere obra-prozesuak optimizatu eta eraikinen prezioa merkatzeko ildo interesgarri bat dira, eta hortik berrikuntza asko etorriko da ondorengo urteetan.

#### **Pandemia hasierako itxialdiaren ondoren, etxean zaharberritzeak egiteko nahia agertu zuten askok. Zer erakusten du horrek?**

Etxean gehiago bizi izan ginenez, egunerokotasun azkarrean garrantzi handirik ematen ez genizkien gauzak garrantzitsuak direla gure bizi-kalitatean: argia izatea; gauzak ondo ordenatuta egoteko tokia izatea; lo egiteko, kirola egiteko, sukaldian gustura ibiltzeko, bulegotxo bat izateko edo eguzkiak joko duen espazio erosoak izatea... Horiek gure ongizatearen eta bizi-kalitatearen adierazgarriak dira. Jendeak bere etxebizitzak aztertu ditu, eta, aurkitutako gabeziak zuzentze aldera, ikuspuntu sortzailetik hobekuntza dezente egin ditu. Positiboa deritzot horri, arkitekturak gure bizitzetan duen inpaktua nabarmen geratu delako. Izan ere, azken finean, gure bizitzaren %90 eraikinen barruan pasatzen dugu. ■■■